



Hor nonbait bazan kakanarru zirtzil bat

Hor nonbait bazan kakanarru zirtzil bat
bazter-nahasle profesional horietakoa,
denen gainetik zegoela uste zuen ergelak
baina emango diot orain ondo irabazi duena.

Zuk zeuk ereindakoa itzuliko dizut orain
ikusiko duzu zer den jipoi on bat hartzea.
Noizbait esango ditut zure izen-abizenak
bakoitzak jakin dezan petral hau nor dan.

Zure akatsen artetik baten bat hautatzea
zinez diotsut erraza baino errazagoa dala;
duzun arima mixerablea izango da apika
higuinik gehien denetan sortzen didana.

Kaka-aurpegi, lerre-jario, begi-okerrak
baino ez dizuet esango oraingoan;
Haren amak 'kusten duen bakoitzean
miokardioko infartua dauka. Pentsa ba!

Astakilo baten ondoan dagoenean
zaila da bereizten bakoitza nor dan,
ez balitz izango haren belarriengatik:
astoak baino askoz luzeagoak dauzka!

Ikusten zaio askotan andrea'kin paseoan
azienda bat eskapau dela dirudi halakoetan
bata arrantzaka bestea kurrinka, a zer parean!
animalien hizkuntzan irakatsiko dizute biak!

Ederki ezagutzen dute tabernetan-eta
(ohorezko bezero daukate izendatuta!),
berdin ere lurralde osoko putetxeetan
("Sifilitiko jauna" deritzote halakoetan).

Ume txiki bat dute, monikako antzekoa:
buztan-luze, aurpegi-zozo, ai ze desastrea!
ditietatik zabuka, herrestan darama amak,
aita "tontolategi" atzean dula, lerdeka.

Arras horditzean, burua argitzen zaio;
aitzurra igaro orduko, lehengo ergel arrai.

Urez ezin da busti, uzkuratzen baitzaio
buruko garuna, berez duen nahiko ñaño.